

Noaqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

2000ko urtarraren 21a - 7. urtea

Usurbil, 81 - zenbakia



**Kalezarko 25
monjen kontuak**

N·I

g
l
e
a
p
a
i
n
d
e
g
i
a

Urte berri on! Ondo pasa gabonak



M
i
x
t
o
a

Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Aritzeta 2-2, 1.A Tlf. 943 36 19 51

ARRATE TABERNA ETA ZAHAR EGOITZA



Orain, billarrean eta futbolinean
jokatzeko aukera aparta!!

Aginaga

Tel. 943 36 63 40



SSAGARDOTEGIA



Santuenea


Tel.: 943 36 50 31
Mobila: 670027731

Aizpurua



*Jai hauetan ere zure
mahaia ondo hornituko
dugu!*

Telesforo Ardoak



Kale Nagusia, 25 Telf. 943 36 12 20

Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Alazne!** Urtarrilaren 6an 4 urte bete zenituen, baina etxeok ez gara ahaztu. Berandugo bada ere zorionak eta muxu haundi bat zuretzat.



Urte askoan **Jokin!** Urtarrilaren 13an 4 urte bete zenituen, beraz hasi gizontxo bat bezala portatzen bihurrikeri gehiago egin gabe. Zorionak "primo".



Zorionak **Miren** urtarrilaren 16an 15 urte erori zitzaizkizulako. Berandu bada ere hona hemen nire zorionik beroenak eta ea noiz gonbidatzen didazun kalimotxo bat. Zure lagun minaren partez.



Zorionak **Inaxio!** Urruti bahago ere etxeok gogoratzen gaituk hitaz. Muxu haundi bat denon partez eta bereziki hire hiliba Julenen partez. Hire Usurbilgo familia.



Aupa **Txomin!** Urtarrilaren 7an zure urtebetetze eguna izan zen, baina zure hilibak ez gara ahaztu. Zorionak eta urte askoan!



Zorionak **Sonia!** Urtarrilaren 16an bete zenituen adina muxu zuretzat. Arantxa eta Nagoreren partez.



Zorionak **Eneko, Mikel** eta amona **Gergori.** Urtarrilaren 15, 19 eta 22an zuen urtebetetze eguna izanenez ondo pasako zenutelakoan, muxu haundi bat etxeok guztien partetik.



Aupa **Nekane,** zorionak! Urtarrilaren 22an 15 urte egingo dituzu, "que fuerte". Zorionak eta ondo pasa...zuk badakizu zeinekin... Muxu haundi bat zure famili eta lagunaren partez

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota titulu-
ren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tartea hau erabili dezakete. Ekarri jarri behar-
reko festua eta argazkia.

Hurrengo alea: otsailaren 4a
Ekartzeko azken eguna: urtarrilaren 29a

Jaiotzak

Enara Lizaso
Matxain
(1999-12-23)
Atxegalde

2.000. efektua gure ordenadore-
tara iritsi ote den pentsatzen egon-
go zineten dagoeneko, ez gara
harritzen. 1999. urteko azken alean
urtarrilaren 14an itzuliko ginela
agindu, eta orain arte **Noaua!** aldiz-
kariaren berririk ez. Hau da marka
hau!, urte berria ondo hasi dugu
halajaina. Ordenadoreek ez, baina
guk harrapatu dugu 2.000. urteko
efektua. Gripearren hatzaparretan
erori garela, arraioa! Astebete
berandugo bada ere hemen gai-
tuzue berriz. Beste behin ere, barka-
tu irakurle!

EUSKO TRENBIDEAKEN AUTOBUS ORDUTEGIA

ASTEGUNETAN

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.40	08.05	08.25	06.45	07.05	07.30
08.00	08.25	08.35**	07.15	07.35	08.00
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30
09.00	09.30	09.40*	08.15	08.35	09.00
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30
10.40	11.05	11.25	09.20**	09.30	10.00
11.40	12.05	12.25	09.45	10.05	10.30
12.00	12.25	12.35**	10.20*	10.30	11.00
12.40	13.05	13.25	10.45	11.05	11.30
13.00	13.30	13.40*	11.45	12.05	12.30
13.40	14.05	14.25	12.45	13.05	13.30
14.00	14.30	14.40**	13.20**	13.30	13.55
14.40	15.05	15.25	13.45	14.05	14.30
15.00	15.25	15.40*	14.20*	14.30	15.00
15.40	16.05	16.25	14.45	15.05	15.30
16.40	17.05	17.25	15.20**	15.30	15.55
17.40	18.05	18.25	15.45	16.05	16.30
18.00	18.30	18.40*	16.20**	16.30	17.00
18.40	19.05	19.25	16.45	17.05	17.30
19.00	19.25	19.35**	17.45	18.05	18.30
19.40	20.05	20.25	18.45	19.05	19.30
20.00	20.30	20.40*	19.20*	19.30	20.00
21.00	21.25	21.45	19.45	20.05	20.30
22.00	22.30	22.50	21.15	21.35	22.00

ASTEBURUTAN

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.45	17.05	17.30
18.30	18.55	19.15	17.45	18.05	18.30
19.30	19.55	19.15	18.45	19.05	19.30
20.30	20.55	20.15	19.45	20.05	20.30
21.30	21.55	21.15	20.45	21.05	21.30
22.30	22.55	22.15	21.45	22.05	22.30

* Orioraino bakarrik

** Aiaraino joaten da

* Oriotik irtetzen da

** Aiatik irtetzen da

Bai, esan?

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Anbulategia 36 20 13
- Udarrégi ikastola 36 12 16
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiarde kiroldegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Gurutze Gorria 27 22 22
- Gure Pakea 37 32 28
- Gure Elkarte 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria 36 03 21

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua@topagunea.com
Web orria:
<http://www.topagunea.com/noaua/>

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika eta
Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Eснаola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Manuel Begiristain, Eukene Kamino, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur eta Arantxa Irazustabarrena.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta
Nerea Kamino.

Erredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika eta
Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua eta
Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketak

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteke jendaurreko udarako ordutegia: 11.00-13.00 astegunetan

Azala:

Sagrada Familia
kongregazioko monjak
Kalezarko konbentuan

Zer irizten?



Euskal presoen borroka etengabea

Ramon Uribe Navarro
Usurbildar preso politikoa

Kaixo lagunak!!

Palentziako Dueñas-eko espetxe honetatik idazten dizuet nire elkartasuna eta animoak bidali asmoz. Usurbil herri txikia da, bitxia nonbait, eta denok ezagutzen gara. Zuetariko askok ezagutuko nauzue, eta jakin, jakingo duzue bost urte eta piku daramatzadala Espainiako kartzeletatik bueltaka. Ondo ezagutzen dut bai, Espainia honetako geografia, eta zoritxarrez, nire senideek ere ondo ezagutzen dituzte honaino heltzeko dauden errepide luze eta hotzak.

Egoera berri baten atarian gauden honetan gero eta beharrezkoagoa suertatzen da espetxeetan bizi den egoera latza mugiaraztea, exterminiozko politika krudel honen bultzatzaileak mugiaraztea hain zuzen ere. Nola? zer egin dezakegu guk, barruan gaudenok, eta zuek, kanpoan zaudetenok? Orain arte egin duguna baino gehiago, dudarik ez izan. Denon eskutan dago egoera hau aldatzeko erronka.

Euskal preso politikook mugagabeko gose greba bati ekin diogu, eta ez da lehenengo aldia tamaina honetako borroka egiten dugula. Hamaika aldiz ja jarri dugu gure bizitza arriskuan,

eta hamaika aldiz gehiago jarriko dugu beharra ikusi ezker. Seguraski gehiago ere egin dezakegu, baina zuek borrokaren lekukoa hartu behar duzuela uste dugu benetan. Barruko gose greba kaleratu behar dugu denon artean, eta Usurbilek borroka honen isla izan behar du denbora gehiagorik galdu gabe. Ondo dago konzentrazioak, enkarteladak eta abar burutzea astero; ondo dago udalak aho batez euskal presoekiko elkartasunezko mozioak onartzea; ondo dago hau guztia, baina zerbait gehiago egiteko eta emateko garaia heldu dela uste dugu. Ez, ez galdetu zer gehiago egin daitekeen. Ez dakigu. Guk guztia eman dugu, eta dugun guztia ematen jarraituko dugu gure Euskal Herriarekiko konprometua erabatekoa delako. Baina, eta bihotzez esaten dizuet, ez dut guk darماغun borrokarekin konparatuz, bere tamainako erantzuna ikusten Usurbilen. Ez da gutxi, ez da asko ere. Besterik ez, lagunak. Hoberena opa dizuet eta milurteko berriari begira, berriz, askatasuna, bakea eta independentzia gure Euskal Herrirako.


Aberria ala hill!!



USURBILGO UDALA



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



ika-mika

Eliza eta erdara. Erantzuna

Egia jakin dezazuen idazten di-zuet. "Euskaldun jendea besterik ez zegoen elizan" esaten zen, ez dut uste hori egia denik. Ni usurbildarra naiz, eta Usurbilgo euskaldun jende gehiena ezagutzen dut. Hileta **Rosina Etxeberriarena** zen, **Iñaki Labakaren** amonarena. Bere seme **Patxi Labakak** eman zuen meza. Niretzat ezezaguna zen jende ugari zen meza horretan eta gainera apaizak oso hitz gutxi egin zituen erderaz. Bidezkoa iruditzen zait bestalde, erderaz hitz egitea. Apaizak esan zenez, Donostiako "Koruko Andra Mari eta Bizente Donearen parrokitik" eliztar asko etorri zen. Hileta bat nola egin ez du parrokiak erabakitzen, familiak baizik.

Parroki eguna. Zer da parrokia? Usurbilgo herriak bi Parrokia dauka: bat Aginagan Prantzizko

Donearena eta beste Salbatore Parrokia usurbilen. Salbatore parrokiaren sartzan dira Usurbil, San Esteban, Txokoalde, Zubieta eta beste auzoetan bizi diren kristau eta bataiatutako guztiak.

Bidezkoa iruditzen zait urtean bi edo hiru aldiz otoitz egiteko elkarrekin biltzea. Euskaldunak ez dute parroki bat osatzen eta erdaldunak bestea, hori ez litzateke parroki izango. Jesusek ez zituen hizkuntza batekoak eta bestekoak sakabanatu, elkartu baizik. Familia batean seme edo alabaren batek erdaldun bat sartzan badu, famili bilera bi egunetan egiten al dute? Hori ez litzateke famili bilera izango. Hala ere hori famili batean egin daiteke, elizan ez.

Pertsona horrek gauza horiek Noauan idazterakoan oso gaizki egin du. Parrokiko akatsak ez ditu Noauan jarrita konponduko,

parroki kontseilura edo erretorengana zuzenean joanda baizik. Honekin gauzak okertu besterik ez ditu egin. Meza zalea bada badauka euskaraz non entzuna. Larunbatean 20.00etan, igandean Zubietan eta Urdaiagan eta parrokiaren 11.30etan. Horra aukera.

Akatsak zuzenduz

79. alean, gaztetxearen inguruko erreportaiaren, Potxonea udalarena zela esaten genuen. Hori ez da horrela. Potxonea markesarena da eta alkilerrean dute usurbildar batzuek. Udalak etxe hori erostea hitzez adostuta du, baina aurrekontuak onartu zain daude eta oraindik ez du erosi. Bestalde urtezahar gauean norbaitzuk barrura sartu eta zenbait txikizio egin zituztenez etxe hori alkilerrean dutela argitu nahi dute.

Erredakzio kontseilua

Txirikitutik



la bera baino haundiagoak dira eta! Ikus ezazue nolako kalabazak aurkitu zituen **Gines Ibarra** Erriberako bere baratzen. Metro eta erdikoak ziren, eta nahikoa lan izan zuten bi pieza hauek mugitzeko, pisua ere ez baitzen nolanhikoa. 2.000 urtean sartzearekin batera, 2000 efektua bailitzan, erraldoi bihurtu ziren bi kalabaza hauek. Ginesek zioen moduan, Erriberan edozer hazi daiteke. "Urdaiazpikoak landatu ahal izanez gero urdaiazpiko galantak aterako lirateke lur haue-tan".

PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

WITZANGEN

HERRIKO TABERNA



Astebukaeretan bokatak, plater
konbinatuak, pintxo beroak...

Euskal presoak etxera!

Tel. 943 36 02 17

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



ESTRELLA
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako

Zubirronea, 10
Tel. 943 37 18 07 - Fax: 943 37 63 41

TXOKOALDE

Etxebizitzak Txokoalden

Imanol Goenaga



Iritsi zaigu dagoeneko ditxo-sozko 2000.urtea. Bazirudien munduaren akabera zettorrela, bazirudien aldaketa zekarrela urte borobil honek, baina, ez da hainbesterako izan, hala?



Hala ere, eta dagoeneko ohituta gauden arren, Txokoalde asko aldatu da, batez ere uholdeetatik hona. Eta, entzun ditugun zurrumurruen arabera, mende berri honen hasierak ere

aldaketak ekarriko ditu auzora; etxeak egitekoak omen dira. Guri hau ez zaigu gaizki iruditzen, beti ere bere tamainan.

Izan ere, auzo txiki eta lasaia da Txokoalde eta hortxe du bere xarma. Etxebizitzak egite-

ko leku ezin hobea da eta badirudi norbait hortaz konturatu dela. Auzoan etxebizitzak egitea aberatsa da gure auzoarentzat, izan ere, modu honetara auzoko gazteok bertan bizitzen gelditzeko aukera izango baitugu. Baina beti bere txikitasuna eta lasaiatasuna mantentzea garrantzitsua dela deritzogu.

Bestalde, 99a ederki amaitu genuen, "EZIN IZAN" eta "SOLBENCIA" taldeen kontzertua izan baikenuen gatzetxean. Nahiz eta jende asko ez zen izan, giro bikaina sortu zen, nahiz eta espero genuen hirugarren taldea "PCN" ez zen etorri.

KALEBERRI

Esku-pelota frontoian

Eneko Harreguy



Zale amorratua naizen alde-tik egun puri-purian dagoen kirol baten inguruan mintzoko natzaizue: Esku-pelotaz hain juxtu. Oro har, euskaldun gehiengo baten gustokoa da kirol ikusgarri hau eta une honetan pelotaz gozatu ahal izateko-modu batera edo bestera-baliabide ugariak ditugu. Nonnahi aurki ditzakegu frontoiak gure esku, partiduak telebistaz ere ikusteko aukera, eta inork partiduari emozio gehiago emateko dirua arriskatu nahi balu...

Pelota ia futbolaren pare bilakatu da telebistaren esparru horretan eta haurrengan orain kirolari sasi-jainkoak ez dira fut-



bolariak soilik izaten (nahiz eta azken hauek txoratu gehien umeak). Haur ugari izango dira ziuraski telebistaz ikusteaz gain herrian jokatzeko ere ikusten duten Alustizaren jarraitzaile, eta hauxe bera izan liteke, agian, kilkirrei zulotik ateratzera bultzatzen dien zirieta bat. Nor ez da saiatu Unanueren

modura ezker-gantxoak sartzen, Goñik pilotari ematen dion abiadura berdintzen...telebistaz saltzen digutena prezio berean erosten eta saltzen!

Gure herrian, eta Euskal Herriko gainontzeko herri gehientsuenetan ere hala uste dut, frontoirik bada, herriaren erdigunean edo elizaren ondoran eraiki dituzte. Egokia eta eroso deritzot. Frontoiak pelotan aritzeaz gain beste aukera asko egiteko bidea irekitzen duelako: zorua laua eta leuna eta sabaia estalia izateak ematen ditu posibilitateak. Frontoiaren alde onez baliatuz, gazteek maiz jotzen dugu frontoira kirola egiten nahiean.

KALEZAR

Andoni Udabe

Kronista lanetan...

Urte berri on denoi!
Noaualk beste urte bati ekin behar diola jakinda pixkanaka-pixkanaka lanean hasi beharrean gara. Horretarako herritarren eta gure kasuan, Kalexartarren

laguntza eta babesa ezinbestekoa dira. Hau guztia hizpide hartuta, ondorengo hau esan nahi nuke:

Auzoko kronikak egiten ditugunok tarteka gure hitzak eta argazia prestatzen ditugu eta beti ez dugu denentzat interesgarria den kronika lortzen; edo gogaikagarria izan daiteke, edo ez dugu ezer esan, "betelana" bakarrik egin dugu; edo baita norbaitek pentsa dezake..." Joño!

Ba nik beste horrek jartzeitun txoakeiak baiño kontakizun eo pasarte polittauak bazezkat ba..."

Hala bada esan eta saiatuko gara guztien nahia betetzen; xeibrekeriak, auzoko obrak, Kakaerrekako Patxiri oiloak lapurtu dizkiotela, amonaren errezetak, erremedio eta ukendu miragarriak, festak eta parrandak,...nahi den edozer.

Horrela bada, ea Noaual eta bereziki Kalezarko kronikak interesgarriagoak eta denen gustokoak egiten ditugun. Aldez aurretik eskerrak guzti-guztiori.

Gora Kalezar eta Kalezartarrak!!



ATXEGALDE

Zaloa Arnaiz




Tintilintin jaisten direnentzako

Aurreko batean auzoan ezaguna zaigun poste baten berri eman nizuen. Oroimena freskatzeko; Mahaspildegiti elkartearen aurreko aparkalekuan kokaturik dago eta oraindik bere horretan jarraitzen du. Orain arte inork ez du jakin zertarako jarrita dagoen, baina sartu berri garen 2000. urteak poste honi buruzko berriak ekarri dizkit.

Paris aldeko deserrian preso duten txoritxo batek ziurtatu didanez, ditzosozko postea Mahaspildegitik gehitxo edanda ateratzen direnentzako jarria omen dago, lurrera eror-

tzean ez dezaten burua hautsi. Honen iritziz bankua bakarrik falta da, bertan atsedean har dezaten. Mahaspildegitik tintilintin jaisten direnak eskertuko dute.

Eskerrik asko bestalde, ezinbestean gose greban jarri behar izan duen gure txoritxoari, ea berandu baino lehen aske te agure artean kantari ikusten dugun.



SANTUENEA

Agurtzane Solaberrieta



Kupelak, sagardoaren hotelak!

Gabonetako ajea pasa gabe dugun arren, txotx garaia ate joka datorkigu ja. Sagardogileek kupeleetan prest dute sagardo berria sagardozeak noiz dastatuko zain. Aditueen arabera, garai honetarako aurreikusten den sagardoa zaporez, garraztasunez eta taninoz oso orekatua izango da.

Gure udalerrian ederki somatzen dugu txotx garaiaren hasiera. Izan ere, asko izaten baitira Euskal Herri guztitik hain estimatua dugun edaria dastatzera inguru hontako sagardotegietara etortzen direnak. Bizkaitarrak izaten dira gehie-

nak, nahiz eta Iparraldetik eta Nafarroatik ere jende kopuru handia etorri. Astigarraga eta Hernani ditugu honen lekuko. Hilabete hauetan gora egiten baitu nabarmenki sagardozeak kopuruak. Ostiral eta larunbat gaueko giroak gora egin arren, jende gehiegi biltzen da herri hauetako kale eta tabernetan. Usurbilen ere, gutxiago bada ere, ostiral eta larunbat gauetan bisitarien kopurua igo egiten dela esan genezakegu.

Aialde-Berri sagardotegiak duela bi aste ireki zituen bere ateak. Sagardoa, bakailaoa, txu-

letak, gazta... eta trikitixaren doinuaz lagundurik eman zion hasiera aurtengo txotx garaiari. Giro ezin hobea sortu zen sagardotegian.

Lau hilabete hauetan zehar, izango dugu, bai, giro honetaz gozatzeko astirik. Baita nazkatzeko ere, agian!



URDAIAGA

Zaborra Andatzan

Eider Jauregi



Ez dira egun asko haize bolada handiak zirela eta ordu luzez argirik gabe gelditu ginen egun hartaz geroztik. Baina ala eta guztiz ere nik kontatu behar dizuedan honek ez du zer ikusirik haize bolada harekin. Nahiz eta ala dirudien, Andatzako gailurrean agertzen diren zabor guztiak ez dira haizeak eramanez, baizik eta bihotz gabeko gizakiak utziak. Argazkian dagoen zabor guztia nahiz eta pilaturik ikusten den, han goitik zabortegira noiz iritsi ote dira?

Ez dut uste haize bolada zakarrenak ere goitik behera jeisteko gaitasunik duenik, beraz komeniko litzateke berta-

ra egun pasa edo bueltatxo bat ematera joaten den jende guztiak, bere zabor poltsa herri-rra jeitsi eta bertako kontenedore edo zaborra jasotzen den lekuan utziko balu.

Ni neu egia esan ez naiz aspaldian bertan izan, eta honen berri **Xabier Iribarrek** eman zidan. Eskertzen dut bere



lana argazki eta guzti etorri bait zitzaidan. Gure auzo txiki honetan gauza haundirik gertatzen ez denez, idazteko gaia ere berak eman zidan.

Hau esan ondoren bada beste kontu bat argitaratu nahi nukeena. Ehiza garaian maki-rra bat dira San Esteban gailurreko zelaietan eskopetak hartu eta ehizean aritzen direnak baina inori ez zaio gogoratzen azkeneko egunerako utzitako kartutxo azalak jasotzera bueltatzea. Lotsagarria iruditzen zait jarrera hau, zeren, ez bait dira beraien lurak zapaltzen dituztenak besteenak baizik, eta ez dira ohartzen egiten duten kalteaz.

AGINAGA

Aginagan ere urte berria

Aginagan ere urte berrian sartu gaituk/n!!

Bai, bai, Aginaga bezalako "herri" txikietan denbora ez dela pasa ere egiten pentsatzen duzuen guztioi esaten dizuet hau.

Urteak aurrera joan ahala, Aginagari berritzeko eta haunditzeko garaia iritsi zaio eta, ondorioz, denok ikusten dugun bezala etxe berri pila, bideak, errotonda eta beste gauza asko egin dizkigute, beste baserri batzuetan zaharberritze lanak egiten hasi diren bitartean.

Ongi-etorri parean, berriz, izugarrizko pabeloia egiten ari

dira. Hala ere, esan behar, gauza asko egiteko daudela oraindik; frontoia adibidez. Udalari lehenbailehen egitea eskatzen diogu auzotarrek, izan ere, ETB hainbeste pelota ikusita jolasteko gogoz gaude gu ere.

Azkenik, kanpando-rreko erlojuaren orratza, azken egunetako haizea dela medio, lurrean bilatu zuten eta erlojurik gabe egon gara astebete inguru. Beraz, aginagatarren bat berandu iritsi bada nonbaitera badakizue errua zerk duen. Hala ere, gauzak ez daude

Oskar Santamaria



batere argi; haizeak edo "2000. efektua" delakoak hautsi du erlojuaren orratza?

Gure "ikerketa-saila" hau aztertu nahian dabilen artean, urte berri ona opa dizuet aginagatar eta usurbildar guztioi.



ZUBIETA

Urte berria, ohitura berriak

Lehenik eta behin, urte berri on bat opa dizuet guztioi, eta ea hainbeste itxarondako 2.000, urte hau aurrekoa baino hobea izaten den.

Aurreko abenduaren 24ean, eta ohiturari jarraituz, hainbat talde atera ziren Zubietan, etxez etxe eta baserri baserri



kantari. Usurbil eta Lasartetik etorritako gaztetxoek gain, zubietar talde bat ere atera zen, hau, gazte eta helduez osatua. Zubietta alde batetik bestera iragan zuten, jaiotza bizidun bat zeraman gurdi batez lagundurik.

Horrez gain, urtarrilaren 5ean kabalgata txiki bat ere izan genuen, eta bertan, hiru erregeek goxokiak eman zizkieten bertara inguratu ziren haurrei. Beraz, Zubietan gabonak ez dira batere oharkabeen pasa.

Bestetik, ohartuko zineten egun hauetan sortu den zabor piloaz. Azken aldi honetan gure

Olatz de Miguel




artean birziklaketa bezalako ohiturak zabaldu dira. Orain arteko papera zein beiraz gain, plastiko eta metala birziklatzeko aukera ere ezarri da. Zubietarrok, ordea, ez dugu azken hauentzat horrelako kontenedorerik, eta egia esan, oso deserosoa da egunean zehar sortzen den plastiko, lata,...guztia Usurbil edo Lasarteraino eraman behar hori.

Horregatik, esaldi zaharrak diotenari kasu egin nahi badiogu eta urte berriarekin batera ohitura berriak zabaldu, kome-niko litzateke erreztasunak jartzeari, herritarren erantzuna benetan zabaldu izan dadin.

Atallun enpresa gehiago sartzera doaz

Urtebete baino gehiago pasa da Ingemarren iharduera Atallura zabaldu zene-tik. Udalak Atallu industrialdea bihurtzeko apustua egin zuen, eta bertako bost zatietako bat Ingemarrek hartu zuen hasiera batean. Orain, beste lau zatien interesa duten enpresak aurkeztu dira: Ingemar, Gifor, Usurtek-Akaba eta Laser Ken. Enpresa hauen eta udalaren arteko hitzarmena epe motze-ra gauzatu daiteke.

Pasa den urtarrilaren 10ean egin zen ez ohiko plenoan alkateari enpresa horiekin hitzarmenak sinatzeko eskubidea eman zitzaion. Bere garaian Atallu sei zatitan banatu zuten. Ingemarrek hartu zuen lehenengo zatia eta bidearen alde batera hori ikus ditzakegu Ingemarko harri haundiak eta hauek mugitu ahal izateko makinaria.



Hilabete hauetan enpresa bat baino gehiagok bere interesa aurkeztu badu ere, interes hau ez zen egiazkoa izaten, eta bertan behera gelditzen zen zati hauek hartzeko akordioa. Orain, berriz, interesa egiazkoa dela esan digu alkateak eta hitzarmenak sinatzeaz **Joxe Antonio Alfuna** bera

arduratuko da. Bigarren zatia Ingemar S.Ak hartuko du, Gifor-ek hirugarrena, Usurtek-Akaba-k laugarrena eta Laser Ken-ek bosgarrena. Seigarrena, eta azkena, udalaren esku geldituko da. Hitzarmenak sinatu ondoren lur horiek, denak batera, espropiatzen hasiko dira.

Epaimahaiak barkamena eskatzen dio Usurbilgo herriari

Usurbilgo Administrari Laguntzaile eta Errenta Teknikariari dagokien lanpostuak betetzeko frogetan egindako hutsegiteen aurrean, epaimahaikideek, hutsegite horiek zinegotzi eta alkatearen gogoz kontrakoak izanik, erantzunkizun guztia Epaimahaiaren kide teknikoena izan dela jakinarazi nahi die usurbildarrei. Horregatik, lanpostu horiek betetzeko frogetan, emaitzen aldaketa lortzeko ez dela manio-bra edo intentzio nagusirik jakinarazi nahi du epaimahaiak.

Guzti honekin, epaimahaiak barkamena eskatu nahi du sortutako eragozpen eta kalteengatik, bai udal zinegotzi eta alkateari, bai lanpostuetara aurkeztutako izengaiari eta usurbildar guztiei ere bai, herrikideen artean epaimahaiaren jarrerak susmoak sortu baititu.

Alkatea berriz epaitu dute

Pasa den urtarrilaren 18an alkateak beste bisitatxo bat egin behar izan zuen Donostiako auzitegira. Udalak ejerzito espainiarrarekin ez kolaboratzeko hartu zuen erabakia dela eta hainbat epaiketa izan ditu azken urteetan, eta oraingoan atzeratuta zeuden epaiketei aurre egin beharko die. 1994an eta 1996an ez kolaboratzeagatik epaitzen dute oraingoan. Aurreko epaiketetan ez zuen zigorrik jaso, ea oraingoan ere berdina gertatzen den.

**TRUKE
RUK
E**
JANTZIAK
Dagoeneko
merkealdietan
gaude!
Erdiko kalea, 2
Tel:94337 34 81



Urtinea Elkarte

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

**Pinturas
lon**



943 83 09 37 ☎ 670 397504

Azeria Buena-Vista baserriko sukaldean

Azeriak goseak dabiltzala, bai horixe! Behin baino gehiagotan entzun izan dugu halako baserrikan oilasko jana egin duela, edo-eta triskantza izugarriak egin dituela. Gabon hauetan, berriz, Buena-Vista baserriko sukalderaino sartzeko ausardia izan zuen azeri batek. Hala ere ez zuen zorte haundirik izan, Juan Makazagak sarde batekin hil baitzuen bertan.

Abenduaren amaieran gertatu zen. Kalezarko Buena-Vista baserriko **Juan Makazaga**, gauero bezala behiei jatenak emanda oheratu zen. Gau erdian ordea, zerbait gertatzen ari zela somatu zuten: behiak orruka ari ziren eta hori ez zen normala. Gau hartan besteetan baino lehenago eman omen zien jaten, baina arrazoia hori ez zitekeela izan pentsatuta,

ukuilura buelta bat ematea erabaki zuen.

Ukuilura sartu zenean behiak aztoratuta zeuden, eta halako batean zerbaitek sukalde alderako bidera salto egin zuela ikusi zuen. Sukaldera sartzeraz zihoanean berriz, hura ezustekoa!, azeri gazte bat etxeko sukaldean. Ez zen haundia, eta hezurretan omen zegoen, goseak noski. Emazteari deitu, eta bien artean azeria sarde batekin hiltzea lortu zuten. Han amaitu ziren azeri haren goseak.

Hala ere azeria sukalderaino sartzea ez da normala. **Maidar Makazagaren** esanetan "a la desesperada" sartu zen hara. *"Guk oilaskoak baserriaren ondoko etxola batean ditugu, baina han ez zegoen azeria ibili zenaren arrastorik. Ukuiluan berriz, behiak bakarrik ditugu, eta ukuiluan nahiz sukaldean nekez topatu zezakeen janaririk"*.




Itsas Begira erakusketa zabalik



Garai batean untzigintzak garrantzia handia izan zuen Usurbilen. XV. mendetik XIX. mende bukaera arte Aginagako untzioletan ehundaka itsasontzi egin ziren eta gutxi honek usurbildarren bizitzan aldaketa garrantzitsua ekarri zuen. Egurra Andatza-Irisasitik ekartzen zuten, burnioletan jende ugari egiten zuen lana eta olagizon, zurgin, artisau, artillero eta beste hainbat langilek "bergantin eta corbeta" ugari egiteko behar beharrezkoak izan ziren. Guzti honen inguruko erakusketa Udaregi zaharrean ikus dezakezu. Pasa den urtarrilaren 15ean "Oria Ibaiko Beterri Itsas eraikuntza" liburua idatzi zuen **Lurdes Odrizolaren** hitzaldiarekin ireki zen urtarrilaren 30a arte zabalik egongo den erakusketa.

Kale Nagusia, 9 USURBIL
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

XABIER
EDARITEGIA

Etor zaitez,
eta dasta itzazu
Goierriko produktuak

- ✗ Idiazabal gazta
- ✗ Beasaingo odolkiak...

Kontseju zarra, 13 ☎ 943 36 04 66

1916ko ekainetik Kalezarren dauden Sagrada Familiako monjak



Bizitza normala egiten dute. Goizean goiz jekitzen dira batzuk, beranduago besteak, goizeko meza entzun eta beraien eginbeharrak burutzerara. Munduan gertatzen denaren berri izateko Telebista ikusten dute batzuk, inoiz ere ez entzun dute besteak, eta bazkal ondoren herrian zehar ibiltzeko bat egitera joaten direnak ere badira. Kalezarko monjetaz hitz egiten ari nazkaizue. 1916az geroztik daude Kalezarren, eta gustora gainera.

Konbentura sartu eta han nuen Alegiko Sor Mertxe atean zain.

Hainbeste alditan entzun ditugun Kalezarko monjen bizitzaz zerbait jakin asmoz beraien hitz aspertu bat izan nahi nuela eta berari deitu nion, *Noaia!*ko bazkide da bera, eta noski, monjek ez zuten eragozpenik jarri. Han zeuden denak errezatzen, ni ikusitakoa errezatzen bukatu, borobil bat eginda eseri eta nire galderen zain gelditu ziren. 21 monja nituen aurrean, monja jantziarekin batzuk, soineko normalez besteak.

25 monja daude gaur egun Kalezarko konbentuan. 60 urtetik gorakoak dira denak, eta 90 urtetik gora dituztenak ere badituzte tartean. Batzuk urte asko daramatzate gure herrian, beste batzuk gutxiago. Sor Josefa adibidez, 1948an etorri zen hona, eta bertan jarraitzen du oraindik. Beste batek 38 urte darama-

Garai batean 80 monja inguru egoten ziren Kalezarko konbentuan, gaur egun 25 besterik ez daude

tzala esan dit, 30, 28, 25, 5... horrela Kalezarko konbentura duela sei hilabete etorri zen Amezketa monja arte. Nafarrak dira batzuk, Lizarra, Iruñea, Oiz, Baztan..., gipuzkoarrak besteak Amezketa, Orendain, Alegi, Zaldibia... eta arabarrak ere badaude, Aguraingoak hain zuzen ere. Ezin ahaztu Torrelavegakoa den monjaz.

Sagrada Familia kongregaziokoak dira

Gaur egun Kalezarko konbentuan badaude ere, hara eta hona ibilitakoak dira

gehienak. "Gu Burdeosko Sagrada familia kongregaziokoak gara, eta bertatik esaten digute zein konbentutara joan behar dugun. Konbentua bakoitzean eskaini beharreko zerbitzuak desberdinak dira, eta zerbitzuen arabera toki batera edo bestera bidaltzen gaituzte".

Kalezarko erretirorako konbentua da. Gainontzeko zerbitzuak ezin dituztenean eman Kalezarkoaren antzeko konbentutara bidaltzen dituzte, beraien eginbeharretara mugatu daitezkeen konbentutara. Adineko monjen erresidentzia bat litzateke hau. Hala ere, kongregazioan zoriotsu direla argi eta garbi utzi nahi izan dute "Nik 73 urte daramatzat kongregazioan dio monja zaharrenetako batek- eta oso gustora ibili izan nahiz urte horietan, eta orain ere gustora nago noski"

Jende askok bestelakoa uste badu ere, bizitza normala egi-

ten dute. Ez dute esnatzeko ordu jakinik. Batzuk goizeko seiretan jeikitzen dira, besteak 7.00etan, baina hori bai, goizeko 8.00etan izaten duten eukaristian biltzen dira denak. 8.45etan gosaldu eta ondoren bakoitzak bere eginbeharrei ekiten die: garbiketaz arduratzen dira batzuk, konbentuan dauden monja gaixoentzat erizaintza lanak egiten besteak, patatak edo sagarrak zuri-tu...etxe batean egin beharreko lanak egiten dituzte.

Bazkaldu ondoren errosarioa egin, irakurketa, gaixoekin egon eta 18,30etan bezperak izaten dituzte. 20.00etan afaldu eta ondoren telebista ikusten dute batzuk. Eguneko berriak entzun, mundua nola dijoan ikusi... eta segidan lotara.

Herriaren alde, munduaren alde asko erreztatzen omen dute. Izan ere, munduan izaten diren gertakariak eta herrian gertatzen direnak ere bai noski, gertutik jarraitzen dituzte. *"Noaua! aldizkaria jasotzen dugu. Euskaldunak bi bakarrik gara - dio Mertxek- baina askotan nik itzulpen lanak egiten ditut. Jaiotzak, heriotzak, herrian egiten diren konponketak... gertutik jarraitzen ditugu aldizkariaren bidez"*.

Herrian bueltatxoamateko gustokoa dute

Jende askok bestelakorik uste badu ere, monja hauek ez dira egunero konbentuan sartuta egoten. Gehienak adinekoak dira, baina bazkaldu ondoren herrian ibiltzea gustoko dutenek beren bueltatxoak egiten dute. Herria "ikertzea" gustokoa dute batzuk. *"Herriko txokoak ondo ezagutzen ditugu. Kalezar, Urdaiaga, Santuenea... gure eguneroko ibilalditxoak ez digu inork kentzen"* dio ia egunero ibiltzera ateratzen den monjetako batek. Gero, konbentura itzultzen direnean beste monjei herrian ikusi dituzten aldaketen



Kalezarra 1916ko ekainean etorri ziren Sagrada Familiako monjak

berri ematen die. Kalezarren urte dexente daramaten monjek herriak azken urteetan aldaketa nabarmena izan duela esan digute: *"etxe asko egiten ari dira, gehiegi agian"*.

Azken hamarkadetan Kalezarko konbentuan dauden monjen kopurua asko gutxitu da. Garai batean herriko neskak konbentua aurrean

"Guk beste herritarren antzeko bizitza egiten dugu. Telebista ikusi, herrian bueltatxo bat eman..."

zegoen ikastetxean (gero Udaregi izan zena) ikasten zuten, eta monjak izaten ziren "maistrak". Rosalia, Konsuelo... emakume batek baino gehiagok gogoratuko ditu izen hauek eta gehiago. Garai hartan konbentuan 80 monja baino gehiago egoten omen ziren, gaur egun, ordea, 25 besterik ez daude.

1916ko ekainean etorri ziren Kalezarrera lehenengo monjak. Ordu arte Elgoibarren zegoen monja zaharrak egoitako egoitza, baina hemen baserria erosi eta honuntz

bidali zituzten. Garai hartan 70 monja inguru etorri ziren, baina zaharrak ziren gehienak eta herriari begira ez zuten ekintzarik burutzen. Gero, 50. hamarkadan herriko neskei klaseak ematen hasi, eta lan horretan jardun zuten 84-85 ikasturte arte.

Oroitzapenak eguneroko bizitzan

Konbentuko bizitzak aldaketa nabarmena izan duela ezin dute ukatu. Lehen jende asko etortzen omen zen idazteko makinan idazten, josten eta beste hainbat gauza ikastera. *"Konbentua bizia zen hura. Usurbildar bat baino gehiago pasa da gure eskuetatik eta oraindik gogoratzen gaituztela ikusteak poz handia ematen digu"*. Gaur egun ere, kalean doazenean batek baino gehiagok gogoratzen omen dizkie garai haietan *"monjetan"* pasa zituzten goiz eta arratsaldeak. Orain ere Kalezarren oso gustora daudela garbi utzi nahi dute. *"Urtean behin, gabonetan, jaiotza etortzen denean gustora egoten gara denok. Alde batetik ilusio handia egiten digu, eta beste aldetik garai batean gure ikasle ziren ama askorekin topo egiten dugu"*.

Josu Aranberri

EHUko urrezko domina Artze anaientzat

Jexux eta JosAnton Artze Usurbildarrek Euskal Herriko Unibertsitateko urrezko domina jasoko dutela jakitera eman dute. Mikel Laboa eta Benito Lertxundirekin batera, euskal kulturaren zabaldu duten bidea eta egiten ari diren lana saritu nahi izan du EHUk. Ez Dok Amairu abiapuntu izanik, gaurdaino hanibat hamarkadatan egindako ibilbidearen onespena da saria.

Euskal Herriko Unibertsitateko Urrezko Domina 1983an sortu zen. Urte hauetan unibertsitate munduaren inguruan egindako lanak saritu izan dituzte, baina aurten ez da horrelakorik gertatuko. Kulturaren aurrerabidean izandako lanari garrantzia eman, eta urteetan kultur mugimenduan murgilduta ibilitakoei eta horretan jarduten dutenei ematea erabaki du: Ez Dok Amairu abiapuntu izanik, gaurdaino hainbat hamarkadatan egindako ibilbidearen onespena izan da saria.

Mikel Laboa, Benito Lertxundi, JosAnton eta Jexux Artze izan dira sarituak. Azken honek behintzat pozik hartu du saria. *"Garai hura oso emankorra izan zen, eta orain euskal kultura bere bidea egiten ari da. Kultur eremu guztien esnatzea izan zen neurri handi batean. Ni gazteenetakoa nintzen, eta liluragarria iruditzen*



zitzaidan gertatzen ari zena. Orduko hasiera izan zen".


Hogeitamabost urte beteko dira Ez dok Amairu sortu zela eta orduan lau sarituak hasi berriak ziren. *"Ez Dok Amairuk hiru helburu nagusi zituen. Batetik, ezagutzen ez ziren kantu zaharrak berreskuratzea eta jendeari ezagutaraztea. Bestetik, garaiari egokituta baina gure tradizioan oinarrituta, kantu berriak sortzea, poetika aldetik eta musikaren ikuspegitik. Eta, azkenik, eza-*

gutzen ez ziren musika tresnak agertzea" dio **JosAnton Artzek**.

EHUko urrezko domina unibertsitate munduari lotuta egotetik kultur arlora pasa izana positibotzat hartzen du usurbildar olerkariak. *"Sari kolektiboa izanda ondo dago, eta unibertsitateetik etortzea ez zait gaizki iruditzen, gutxitan hartzen baititu aintzat kultur ekimenak. Interesgarria da unibertsitateak kultur mugimendua aditzera eman nahi izate"*.

EHUko Errektore taldeak joan den urteko azken Gobernu Batzordean proposatu zuen artista horiek saritzea, eta gobernukideek onartu zuten proposamena. Oraindik ez dute sari banaketaren data zehatzik eman. Bi hilabetearen inguruan izango da.

Josu Aranberri



MAHUKA

BEHERADENAK %30ean

Gizon eta emakumezkoen

modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

• KIROLAK •



• MODA •

MERKEALDIAK %30ean

Tlf.: 943 36 65 42

Atxegalde,10

Alkatea eta Patxi Segurola gose greban

Joxe Antonio Altuna alkatea gose greban egon zen pasa den urtarrilaren 10etik 15era Altsasun Euskal Herritarroko beste 27 alkaterekin batera. Presoen egoaren larritasunak bultzatuta eta hauen eskubide zibil nahiz politikoak aldarrikatu zituzten bost eguneko baraualdian. Preso politikoek Euskal Herrian, Euskal Herriko kaleetan eta etxeetan, egon behar dutela eta protagonista direlako ezinbestekoak direla gogorazi zuten Altsasun



Urtero bezala abenduaren 30ean gudari hilei omenaldia egin zitzaion herriko frontoian. 1980. urtean **Joxe Martin Sagardia "Usurbil"** hil zuten egun berean egiten da omenaldi hau eta bertan **Joxe Martin Sagardia bera, Joxe Mari Aranzazistroke "Arrantzale" eta Joxe Luis Segurola "Nazkaz"** omendu zituzten. Dantzari batek aureskua dantzatu ondoren, beraien senitartekoei lore sorta bat eman. bertso eta testu irakurri batzuk tartekatu eta kantariak bi abesti eskaini zituzten.

bildu ziren EHko alkateek. Horrez gain, urtarrilaren 25ean Euskal Herriko udal guztietan ezohiko batzarrak egiteko deia egin zuten, presoen aldeko zazpi neurri zehatz eztabaidatu eta onartzeko.

Bestalde **Patxi Seguro-lak Gorka Martinez** euskal presoaren lekukoa hartu du La Santeko espetxean euskal preso politikoak Estatu espainoleko nahiz Frantziako espetxeetan aurrera eramaten ari diren gose greban. Bien bitartean estatu espainolak Patxi estraditatzeko eskaera aurkeztu berri dio Parisko Apelazio Auzitegiari.



2.000. urtean sartzeko ordu batzuk besterik falta ez zirenean, euskal presoaren eskubideen alde manifestazio ixila egin zen urtezahar egunean Batera plataformak deituta. EAJ, EA, EH, ELA, Elkarri, LAB, Gure Artera eta Senideak taldeetako ordezkariak gain, herritar ugari bildu zen herriko kaleetan zehar egin zen manifestazioan. Sartu berriak garen urte honetan, azken urteetan ez bezala, euskal presoaren eskubideak errespetatu dituzaten eskatu zuen Usurbilgo herriak.



Zubeldia kirolak kirol dendan lapurreta izan zen pasa den urtarrilaren 8an. Goizaldeko 5.00ak aldera dendako kristala apurtu, eskaparatean zeuden zenbait gauza hartu eta kotxe batean zitu bizian alde egin zuten lapurrek. Ez da hau Zubeldia Kirolak dendak jasaten duen lehen lapurreta, iaz ere behin baino gehiagotan sartu baitziren bertara. Bestalde abenduaren 24ko gauean kotxe bat lapurtu zuten Atxegalden. Hala ere, kotxea Ertzaintzak berreskuratu du ja.

Iturgintza - Gasa - Berokuntza

J. Orbegozo



gorriti
EDARITEGIA

kafe berezia



Andatza K.K.E.rekin Formigalera



Eski denboraldia aurrera doa. Abenduaren hasieran ateak ireki zituztenetik jende asko, gero eta gehiago, hurbiltzen da eski estazioetara. Snow edo eskiak hartu eta elurretara bueltatxo bat egiten duten usurbildarrak ere gero eta gehiago dira.

Andatza Kirol Elkarteak, urtero bezala, eski alpinoko irteera antolatu du aurten ere. Iaz Luz Ardidenera joan ziren, Baqueira

Beret-era duela bi urte eta aurten, berriz, Aragoi alde-ra, Formigalera joatea erabaki dute. Otsailaren 26 eta 27an izango da irteera eta prezioa berriz, 11.500 pezetakoa. Izena eman nahi duten guztiek Txiriboga tabernan eman ahal izango dute

izena, eta izena ematerakoan 5.000 pezetako fidantza jarri beharko dute.

Bestalde, otsaileko lehenengo astebukaeran, 5 eta 6an, iraupenezko eskia egin nahi dutenentzat irteera antolatu dute Somport aldera. Izena emateko epea urtarrilaren 23an amaituko da eta 25ean, berriz, bilera egingo da izena eman dutenen artean.

Judo kluba Euskadiko onena

1999ko denboraldia bikaina izan da Usurbilgo Judo Klubarentzat. Gipuzkoa nahiz Euskadiko txapelketetan emaitza onak lortu dituzte, eta asko izan dira etxera ekarri dituzten dominak.

Euskadiko Judo Federakuntzak urtero Euskadiko lehiaketetan parte hartu dutenen artean klub- en sailkapen bat egiten du eta 1999an Usurbilgo Judo kluba izan da emaitza onenak lortu dituen. Urrezko 11, zilarrez-

ko 10 eta brontzeko 10 domina lortu ondoren 95 puntu jaso ditu herriko taldeak. Bigarrenak, berriz, Irungo La Salle San Marcial taldeak 42 puntu lortu ditu.



Emaitzak

Futbola

Urtarrilak 15-16

Zumaiako **2** Usurbil F.T **1** (1.R.)
Usurbil F.T **1** Martutene **2** (1.ju.)
St. Tomas Liz. **2** Usurbil F.T **2** (2.ka.)

Urtarrilak 22-23

Usurbil F.T **2** Urola **3** (1.R.)
Almen **2** Usurbil F.T **2** (1.ju.)
Usurbil F.T **0** Zarautz **2** (n.)

Eskubaloia

Urtarrilak 15-16

Usurbil K.E. **19** Ereintza **23** (2.N.)

Urtarrilak 22-23

Aloña Mendi **22** Usurbil K.E. **15** (2.N.)
Usurbil K.E. **6** Askartza **28** (ju.m.)
Usurbil K.E. **26** Askartza **28** (k.m.)

Hondartzako futbola

Aginaga Sagar. **2** Irrintz **2**
Mecarapid **4** Aginaga Sagar. **3**

Futbol aretoa

Cong. Iceberg **9** Karobi tab. **5**

Laburdurak	
R.: errejonalak	ka.: kadeteak
N.: nazionala	n.: neskek
ju.: jubenila	m.: mutilak

ALBORATA

HARATEGIA

Etxeko berezitasunak:

- Oholkiak
- Txorixoak
- Kroketak...

Behoko kalea, 4
Atxegalde ☎ 943 36 57 42

TXURRUT TABERNA



Giro eta musika atsegina!


San Esteban kalea, 1
Tel: 943 36 00 80

ZENDOIA-ENEA

TABERNA

Gosariak, hamaietakoak,
eguneroko menuak eta
bokatak

Kale Nagusia, 25 TIF. 943 36 25 60



Mikel Iturrioz
26 urte
Santuenea
8. urtea



Kepa Unanue
22 urte
Atxegalde
4. urtea




Carlos Fierro
Delegatua




Jose Lorenzo
41 urte
Entrenatzailea




Gonzalo Brea
24 urte
Santuenea
6. urtea



Enrike Uli
30 urte
Santuenea
9. urtea



Eneko Salsamendi
20 urte
Orio
3. urtea



Jabier Kalonge
19 urte
Usurbil
1. urtea

Usurbil Kirol Elkartea

✎ 1963an sortua

✎ Lehendakaria:

Jon Imanol Etxabe

✎ 200 bazkide


2. Nazionala

□ 80-81 denboraldian Gipuzkoako txapeldunak izanaz 2. nazionalera igo ziren.

□ 92-93 denboraldian Gipuzkoako kopan txapeldunak

□ 98-99 denboraldian Euskadiko azpitxapeldunak. 1. nazionalera igotzeko Galizian jokatu zuten fasean 3. postua


□ 98-99 Gipuzkoako kopako txapeldunak




Pako Agudo
22 urte
Santuenea
4. urtea




Iker Portullarrume
20 urte
Agerre-azpi
3. urtea



Anartz Goia
24 urte
Zubieta
5. urtea




Iñigo Salaberria
20 urte
Orio
3. urtea



Aitor Arruti
29 urte
Santuenea
10. urtea




Kimetz Uranga
19 urte
Orio
3. urtea




Igor Castro
18 urte
Lasarte
1. urtea




J. Mª Hernandez
18 urte
Santuenea
1. urtea



Asier Salsamendi
20 urte
Aginaga
3. urtea



Andoni Flores
19 urte
Atxegalde
2. urtea



Gabriel Sarasola
18 urte
Usurbil
1. urtea



Urko Manterola
18 urte
Kalezar
1. urtea

IGELTSERITZA

URDANTZI, C. B.

Mugikorra: 649435476
649435476
☎ 943 363370- 361439



**ZUMETA
JATETXEA**

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz.
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez.
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piliko piperraz haragi saltsetan.
- Etxeko azkenburukoan dastapena
- Ogia eta kafea 3.675 pzt. (pertsoneko)

TABERNA


TRAGOXR

**BAZKARIAK
ETA AFARIAK**

Santuenea 23
Tf. 9433627 34



Erdi Aroko giroko urtezaharra Usurbilen



Herriko gazte ugari gazte egunean



Banatu ditugu aurtengo xextoak



Azaldu dira aurtengo xextoen irabazleak! Aurtengoan **Mertxe Olaizolak, Aingeru Esnaolak eta Zumeta jatetxekoek** eraman dituzte gure xextoak etxera. Inbidia pittin bat ere izan dugula aitortu behar dugu. Xextoak gure egoitzan izan ditugu azken egunetan irabazleak etorri zain eta tentaziorik ez zaigu falta izan, baina azkenean oso-osorik eraman dituzte etxera.

ZORIONAK ETA ON EGIN!

Koadernatu 1999ko Noaua! guztiak!!

Hona hemen etxeko liburutegia gizentzeko aukera aparta. Urteroko legeari jarraituz, 1999. urteko Noaua! hamabostekariaren ale guztiak- iaz, 23 ale izan ziren-, liburuki batean biltzeko aukera duzu aurtenera. Batzuek liburuki bat izango duzue, besteek bi, baina ez galdu hirugarren liburuki hau libu-


rutegiko apaletan jartzeko aukera. Ale honekin batera banatu dugun aurkibidea aurrean jarriaz urtean zehar agertu diren izen-abizenen arabera, edo gaika, edota artikuluen egileen arabera sailkatutako aurkibidearen laguntzaz zalantza guztiak uxatu ahal izango dituzue. Ez galdu aukera hau.

Zein dira eman beharreko pausoak?

Hartu 1999 urteko Noaua! hamabostekariaren ale guztiak (58-80) eta ale honekin batera banatu dugun aurkibidea eta joan zaitez Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara, edo Laurok, edota Lizardi liburudendara. Hor izango duzu 1999ko liburukiari dagokion azala. Ondoren bi liburudenda horietako batean koadernatzeko agindu.

Noaua! Kultur Elkarteko bazkide zaretenok azala doan izango duzue eta koadernatzea 1.500 pezeta ordaindu beharko duzue. Bazkide ez zaretenok, azalarengandik 500 pezeta ordaindu beharko duzue. Koadernatzea berdin, besteok bezala.

Aleren bat falta bazaizue ez izan gure egoitzan eskatzeko inongo lotsarik, liburukia osatzeko ale guztiak eskura izango dituzue eta. Bazkideok doan, eta besteok ale bakoitza 200 pezeta ordainduz.





Arantxa Manterola

Senideak elkar-
teko kidea

Euskal errefuxia-
tu baten emaztea

27ko greba dela eta

Gabonetako inguruan, behar bada egun bereziak direlako, preso en egoera pil-pilean izan ohi dugu. Aurten, egun hauek pasa berriak diren arren hizpide izaten jarraitzen dutela ezin ukatu. Guretzako, noski, eguneroko ogia da, gure senitartekoek pairatzen duten egoera etengabe aurrean dugulako. Gizartean gaiak merezi duen oihartzuna lortzeko makina bat ahalegin egiten ari da. Horien artean, presoek beraiek burutzen ari diren gose-greba; urtearen bukaerako egunetan zazpiehun lagunek burutu dutena, tartean lau usurbildarrek edo, egunotan, zenbait alkatek, Usurbilgoa barne, Altsasun burutu duten baraualdia. Dena beharko da.

Oraingo honetan, ordea, bada polemika H.B.k urtarrilaren 27rako greba orokorrera dei egin ondoren, 15erako EAK, EAJk eta EBk konbokatutako manifestazioaren inguruan, EH-k bere mezuarekin bertaratzeko agertu duen asmoa dela eta ez dela. Idatzi hau argitaratzerako manifestazioa egin izango da baina bizpahiru zehaztapen egin nahi nituzke hau guztiaren bueltan:

1.- Manifestazioaren lemak preso en egoerarekin zerikusi zuzena ez izan arren, zeharo lotua dagoela irizten dut, greba orokorrerako deialdiaren erreakzioa izan delakoan bainago eta greba, gainera, preso en eskubideen defentsan deitua izan da.

2.- Tamalgarria iruditzen zait gizartearen ordezkari direnak adostasun batera ailegatu ez

izana, baina are tamalgarriago izango litzateke, adostasun ezean, ezer egin gabe geratzea.

Horregatik alderdi politiko zein eragile sindikal eta sozialei ados jartzeko obligazioa dutela esan nahi nieke, baina baita ere, beste gaietan bezala, preso en egoera aldatzeko orain artean egin diren ekimenak nahikoa ez badira izan, presioTMmaila igo egin beharko dela kontuan izateko. Herritarrei, berriz, ezadostasun horiek aitzakia ez daitezela izan, lehen aipatu bezala, ezer ez egiteko alderdien erantzukizunaren gainetik norberarena ere badagoelako.

3.- Batzuentzat kostu handiko neurria edo gehiegikeria izango da greba egitearena. Guretzat, zer esanik ez, beharrezkoa.


Hainbeste urte aurrera eta atzera gai berarekin ibiltzeak ez du normaltasun kutsua erantsi behar krudelkeria egoera honi.

Arren, ez gaitezen izugarrikeria horretan eror eta norberak, alderdi politikoak ados jarri ala ez, aztertu dezala bere baitan zerk duen kostu handiagoa, lan-egun batek edo pertsonaren duintasunaren urraketa sistematikoa. Norberak ikusi dezala hainbeste bider bere esku dagoena egiteko eskatzen zaigunean egin behar duen ala ez. Minutu bat besterik ez bada, hori guztia hausnartzea eskatu nahi nioke herritar bakoitzari.

ETXEAN NAHI DITUGU!



Lehiaketa



Nola izena du argazkiko baserri honek?

Asmatzaileen artean
Antxeta tabernan bi
pertsontzako afaria
zozketatuko dugu.

Itxaskue baserria zen bai, azken alean atera genuen baserria. Batek baino gehiagok Bulano-enea deitzen badio ere, Itxaskue da baserri horren jatorrizko izena. Bi izen hauekin jaso ditugu erantzun gehienak, baino guk Itxaskue izenarekin jaso ditugun erantzunen artean egin dugu zozketa. Eskua poltsan sartu eta.... **Arantxa Otaegi Sarasolak** izango du Patri tabernan beste pertsona batekin afaltzeko aukera. Zorionak.

BAZKIDIE TXARTIELA

5.000 PEZETA URTE OSORAKO



Izena: _____
1.Abizena: _____
2.Abizena: _____
Helbidea: _____
Herria: _____
Tfnoa: _____
Kontu Korrontea (20 digito): _____


468

bazkide ditu Noauak.

Zu ere egin zaitez

bazkide

Zinkildegia
Lentzeria,
gizonezkoentzat arropa,
hauren jantziak,
etxerako behar dituzunak
Aritzeta 1 behean,
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87

TABERNA-JATETXEA

ANTXETA
EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL
TEL: 943 37 03 44


ARRAINDEGIA
PELLO
Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL
 

A genda

URTARRILAK 24 larunbata

- **Euskal Herria Askatu konzentrazioa.** Bordatxo aurreko errotondan 20.00etan.

URTARRILAK 29 larunbata

- Eguzki elkarteak antolatuta **elkarteen arteko II. mus txapelketa** jokatuko da Olarriondoko Eguzki elkartearen arratsaldeko 16.00etan hasita. Parte hartzaileak: **Andatzpe, Eguzki, Mahaspildegi, Peña Pagola, Ibai-Ondo, Aginagako soziedatea, Aitzaga eta Yoko-Garbi.** Txapelketan parte hartu duten guztiak Eguzkin egingo den afarira gonbidatuta daude. Sariak ematen dituztenak: Saltxipi jabetxea, Atxega jabetxea, Araeta sagardotegia, Aginaga sagardotegia eta Antxeta taberna.
- Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketa Oiardo kirol-

degian arratsaldeko 16.30etan hasita.

URTARRILAK 31 astelehena

- **Euskal Herria Askatu konzentrazioa.** Bordatxo aurreko errotondan 20.00etan.

OTSAILAK 5-6

- **Iraupenezko eskia** egin nahi dutenentzat **Somportera irteera** antolatu du Andatza Kirol Kultur Elkarteak. Izena emateko epea urtarrilaren 23an bukatuko da eta bilera hilaren 25ean egingo dute.

OHARRAK

- ✓ **Ford Escort Turbo Diesel kotxea** daukat **salgai.** SS-4609 AS. Deitu 943 36 33 90 / 943 43 54 76 telefonotara.
- ✓ **Neska euskaldun bat** eskaintzen da **haurrak gauetan zain-**

tzeko. Interesatuok deitu 943 36 45 98 telefonora (Belen).

- ✓ **Galtzaragainan dagoen taberna saldu nahi nuke.** Interesatuok deitu 943 36 45 98 telefonora (gauean deitu mesedez).
- ✓ **Rossignol markako snowboard tabla** daukat salgai fijasio eta guzti. Tel.: 943 36 51 80 Kami (gauean deitu).
- ✓ Atxegalden **Xabi janari denda alokatzen da.** Deitu 943 37 08 5 telefonora.
- ✓ Eliza eta Patri tabernako izkinan **tolestatzen den haur aukia galdu** zitzaigun. Jaso zuenak deitu telefono hauetara: 943 36 12 35/ 943 36 60 14
- ✓ **Peugeot 205 kotxea** daukagu salgai. SS-AZ matrikula. Interesatuok deitu 943 36 54 66 telefonora.

ITSAS BEGIRA erakusketa

Noiz: Urtarrilaren 30a bitartean
Ordutegia: 19.00etatik 21.00etara astegunetan
11.00etatik 13.00etara larunbata eta igandeetan
Non: Udarregi zaharrean

DROGOMENPEKOTASUNAREN PREBENTZIOA. (gurasoen arteko topaketak)

Gaia: ESKOLAKO PORROTAREN
PREBENTZIOA FAMILIAN

Dinamizatzailea: TXUS CONGIL
"IZADIA"

Egunak: URTARRILAK 24 ETA 31

Ordua: 17.00etatik 19.00etara

Lekua: UDARREGI ZAHARREAN

Antolatzailea: GURASO ESKOLA

TXARO ARTZE ILEAPAINDEGIA

Buru-azalaren zainketa
Ile-apainketa

Etxebeste, 3

Tel. 37 16 85



- G O Z O K I A K -

IZOZKIAK - FRESKAGARRIAK - FRUITU LEHORRAK

Zubiaurrenea, 3

Tel.: 696 851979

BORDATXO EDARITEGIA

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42

Egin zaitez Noauako bazkide

Merkeago afaldu nahi baduzu, edo eta erosketak merkeago egin nahi badituzu hona hemen zure aukera

**%10eko
beherapena**

Aldatz kirol denda
Mahuka jantzi denda
Pauma Haur jantziak
Truke jantzi denda
Usurbil optika denda
Intza ileapaindegia

**2.500 pezetatik
gorako otordua
eginez gero
%10eko
deskontua**

Antxeta jatetxea
Patri jatetxea
Zumeta jatetxea



USURBILGO UDAL KIROL PATRONATUA




TEL.: 943 37 24 98

FAX: 943 37 14 93



TXIMINIA ALTZARIAK



ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak


Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

Egin txotx! Tolare-sagardotegietan



AGINAGA



Aginaga, Tlf: 943 36 67 10
Etxeko sagardoa dastagai urte osoan.

ARAZETA



Zubieta, Tlf: 943 36 20 49
Egunero txotxeko sagardoa dastatzeko aukera.

ILLUNBE



Txokoalde, Tlf: 943 37 16 49
Sagardotegi eta jatetxeko menua egunero.

IRUIN



Zubieta, Tlf: 943 36 12 29
Eguerdietan irekita eta igandeetan itxita.

SALIZAR



Kalezar, Tlf: 943 36 22 28
Igande gauetan eta astelehen eguerdietan itxita

URDARRA



Aginaga, Tlf: 943 37 26 91
Urtarrilaren 15etik irekita